

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Behin betiko onartzea 2016ko aurrekontua, plantilla eta lanpostu zerrenda

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2016ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, Toki erakundeek aurrekontuei buruzko Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

Aldi berean, eta 7/1985 Legearen 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, 16. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, osorik argitaratzen da udal honek onartutako langileen plantilla eta lanpostu zerrenda.

AURREKONTUA

DIRU SARRERAK	EUROAK
1. Zuzeneko zergak	1.047.284,93
2. Zeharkako zergak	40.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	375.211,96
4. Transferentzia arruntak	1.326.951,00
5. Ondare sarrerak	442.549,90
6. Inbertsio errealak besterentzea	160.000,00
7. Kapital transferentziak	37.492,51
GUZTIRA	3.429.490,30

GASTUAK	EUROAK
1. Langile gastuak	454.818,36
2. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	1.611.461,69
4. Transferentzia arruntak	493.113,93
6. Inbertsio errealak	624.096,32
7. Kapital transferentziak	246.000,00
GUZTIRA	3.429.490,30

AURREKONTU PLANTILLA ETA LANPOSTU ZERRENDA

1. FUNTZIONARIOAK

1. Estatu osorako gaikuntza dutenak:

A) Eskala: idazkaritza-kontuhartzaitza; kopurua: 1; taldea: A1; titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, edo Aktuariatza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna; hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe; egoera: aktiboan; betetzeko era: lehiaketa; lantokia: udaletxea; dedikazioa; osoa; destino-osagarria: 26 (udalhitzeko 25/26 maila); berariazko osagarria: 23.670,36 euro.

1.2. Korporaziokoak:

A. Administrazio Orokorra:

– administrari laguntzailea: kopurua: 2; taldea: C2; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarekin: 1994ko abenduaren 13a, 1. plazaren kasuan, eta 2000ko apirilaren 14a, 2. plazaren kasuan; egoera: aktiboan; betetzeko era: oposizio-lehiaketa; lantokia: 1. plazarena, udaletxea, eta 2. plazarena, udaletxea eta liburutegia; dedikazioa: osoa; destino-osagarriak: 1. plazarena, 19 (udalhitzeko 11. maila), eta 2. plazarena 17 (udalhitzeko 7. maila); Berariazko osagarriak: 1. plazarena 12.898,90 euro eta 2. plazarena: 8.452,22 euro; produktibitate osagarria: 1. plazarena: 3.000 euro.

B. Administrazio Berezia:

Zerbitzu bereziak:

– zerbitzu berezietako behargina: kopurua: 1; taldea: C2; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe; egoera: aktiboan; betetzeko era: oposizio-lehiaketa; lantokia: udaletxea; destino-osagarria: 19 (udalhitzeko 11. maila); berariazko osagarria: 14.044,24; produktibitate osagarria: 3.000 euro.

– zerbitzu askotarako behargina; kopurua: 2; taldea: C2; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. B gidabaimena izatea. Hizkuntza eskakizuna: 1; 1. lanpostuak derrigortasun data du: 2011ko abenduaren 31 eta 2. lanpostuak ez du derrigortasun datarik; egoera: hutsik; betetzeko era: oposizio-lehiaketa; lantokia: zerbitzu asko; destino-osagarria: 14 (udalhitzeko 8. maila); berariazko osagarria: 10.924,69 euro biek.

2. LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK

2.1. Mugagabeko lan kontratupeko langileak.

A. Musika eskolako irakasleak:

– Musika hizkuntza eta pianoa: kopurua: 2; dedikazioa: bata lanaldi partziala eta besteak lanaldi osoa; egoera: iraungitzeko; hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe; lantokia: musika eskola.

– Txistua; kopurua: 1; dedikazioa: lanaldi partziala; egoera: iraungitzeko; hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe; lantokia: musika eskola.

UDALBATZAKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA DIRU ESLEIPENAK:

– Alkate-lehendakaria: lanaldi partziala, ehuneko 73koa, eta urteko ordainsaria 33.096 euro (2015eko uztailaren 9ko udalbatza).

– Kalte-ordainak zinegotziei: osoko bilkuretara joateagatik: 50 euro; kide anitzeko organoetara, batzordeetara eta bileretara joateagatik edo beraien karguak betetzeagatik egin beharreko jarduerengatik: 41,86 euro (hiru ordu edo hortik behera) eta 66,54 euro (hiru ordutik gora).

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, aipatutako erabakiaren aurka. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2016ko martxoaren 8a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIERREZ URKIZA